

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

*Funtsezko baliabideak, eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea enpresa bati ahalbidetzen dioten elementuak dira.*

*Euritakoak, guk egingo ditugu, bertan makinak izango ditugulako gure langileekin euritakoak egiten*

**-Gure kasuan, zein dira behar ditugun elementu garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?**

Ikusi dugunez, baliabideak 4 zatitan banatzen dira: Baliabide fisikoak, Baliabide intelektualak, Giza baliabideak eta Finantza-baliabideak; orain, 4 zatiak azalduko eta aztertuko ditugu, gure enpresako zati guztiak aztertuz.

-Baliabide fisikoa: Gure produkturako, beharrezko baliabide fisikoak oso sinpleak dira, baina, noski, produktu hauek gordetzeko, biltegi bat behar izango dugu, stockean ditugun produktuak gordetzeko. Horretaz aparte, hauek dira gure produkturako behar izango ditugun baliabide eta material fisikoak: Euritakoarentzako makila (75 cm-koa), heldulekua (euritako batena bezala) eta euritakoaren goiko parteak (gabardina), oihalez egindakoa eta aterkien diseinua (Kolore desberdinak, halanola, gorria, urdina, morea eta gardena)

-Baliabide intelektualak: Gure produkturako, hainbat baliabide intelektualak izango ditugu, halanola: txakur bakoitzarentzako, estilo desberdin bat egingo dugu, halanola loreak itsatsiko ditugu, marrazki batzuk egin ahal ditugu...